



Erroma—Batikano'tik.

Ainbat bidezkunde eldu dira Aita Santua'gana igaro diran egunetan, Parantzia'tik 2.000 gudari izandakoak; baita 400 gaste pantzeta abertzale gastedikoak; Austria'tik gastetxo talde edefa; Polonia ta Txekoslovakia'tik talde batzuk; Erroma'tik 500 gogo-inafunak egin dituenak. Eta azkenez Alemania'tik 2.000 gaste, beste 300 milen ordez, Walker agurgafiak esan ebanez. Aita Santua'ri Mixioetarako beribil—automobil—bateskiri eutsen. Beribil onetsi ondoren, Aita Santua'k itzaldi bat egin eutsen eurak gaurko aldi estu oneitan itzaropena zirala azalduaz.

Urte Deuna'ren Amaya. Lourdes'ko eleizkizunak.

Lourdes'ko eleizkizunak, bertan izan dira. Alde guztietako gizostea, gizarteko maia gustietakoa. Aita Santua'ren Ordolari Paceli kardenala beste iru kardenal eta 70 Gongotzain eta Gotzain, euren artean Bilbao ta Iruñea, euzkotar agurgafiak iru mila abade, 150.000 bideztiak, lurbira gustiko kistafakaz batean Yauna'ri bakea eskatu dautse. Iru egunean gau eta egun egizko bakea lurbira onetara ekafi ebanen Ordo eder-edefa opaldua izan da, ain berako dan bakea eskatzeko. Lenengo egunean, Paceli kardenalari afera ona egiteko pantzeta agintarien ordelari az gañera 100 mila lagun bildu ziran. Onek itz egitean, esan eutsen Yaungoikoa'ri bakea eskatzeko. Tira nozbait «laiko»k Yaungoikoa'ren izena aitazen lotsatzen ez diranean be! Abadeak euren Ordu Deuna, yaupak esaten asita laster izan eben. Paceli kardenalak itzaldia egin eutsen. Gero umeen yaunartze eguna. Bigafenean, Andra ta andereñoena, eta irugafenean gizonena. Gustiak bata bestea baño edefago. Bildu zan gizostearentzat tokirik ez da, 20 kilometro inguruko erietan ostatuz egon bear izan eben.

Azkenengo egunean, afatsalako Mesa nagusi ondoren, Aita Santua bere onespina bialdu eban, eta Paceli kardenalak itzaldi sakona egin ondoren, ibildeun zoragafiagaz, eleizkizunak amaitu ziran. Prance'ko erkaldendakari Lebrun'ek be zorian-agufa Paceli yaunari bialdu eutsen. Bitartean Batikano'ko Eleizan, Aita Santua bertan zala, eleizkizun edefa egin zan. Laurenti kardenalak itzaldi bat egin eban, eta abesti askoren ondoren «Te Deum» abestu ta Aita Santua gure Yaunaren onespina emen eban. Ifatizkiñez entzun ziran.

Zine txafaren aurka.

Ipar Amerikan.—Gotzainak buru dirala, zine txafaren aurkako alegiñak geituz doaz. Eta izpar pozgafiak datorriguz. Zire txafaren aurkako Gotzain batzordeak idazki bat argitaldu dau adirazi, igaro diran ile oneitan, zine-mitzetan obakuntza andia oartzan dala; baña lan onuratsua ta iraunkofa egiteko ondiño zintzo jokatu bear dala. Filadelfia'ko kardenalak zinea obenbide dala azaltzeko idazki mamitsua idatzi dau igaro dan Garizuman. Egi gogofen artean, diño, 300 mila eleiztafak euren izena emon dabela, egundo zine txafetara ez yoateko.

Ofez gañera, Lord Danel aba yosulaunaren ardurapean, zinegileentzat araudi bat egin da, «Hays Code of Morality.» Au aintzat artuta egiñak itz emon dabe zine lizunik ez dabela egingo. Sealtze'n be 75.000 katolikotafak agiri bat izenbetu dabe, zine txafai «boicot» egiteko itza emonaz. Dubuque'n 25.000 emakume beste ainbeste egin dabe. Detroit, Bardin ta Cleveland'en be garaitza andiak lortu ditue.

Alemania'n.—Yofa'ra 25'tik Ofila lenengo'ra ospatu dan latefi arteko Batzafara katoliko zine bazkunak be

yoatea erabagi dau. Eta bertan bilduko diran katolikotafak asko izango dirako, Muckerman abari batzafeko egitamu gertatzeko arazoa emon eutsen.

Emen be, zerbait eginbea ba dago, eta gure Gotzain agurgafiaren deyari erantzunaz, zerbait egingo dala uste dogu. Egunokaz Madrid'en egin dan zine txafaren kalteko batzafean, izlari bikañak itz egin dabe, zine txafak egiten dituen kalteak azalduaz. Izlarien artean Azpiazu aba izan da gastedian eta ezkontzan egiten dituen kalteak biziro azaldu dabena. Batzelona'ko yaurloriak zifosten garbitasun zerbait egiten asi da yafaitza'e asko euki ko al dauz.

Antzezlari Katolikoan Bazkuna.

Norbaitek uste izan lei, antzezlari bizitza deun izateko bide ain egokia ez dala, eta safitan gertatzen dana ikusita alantxe dirudi. Baña ondo begiratu ezker, zer dala-ta ez deun, euren zaindari dan Jines deunari yafaituaz? Ofetarokaxe Gillet, Domekatarfen Buru danak, urteak dirala, antzezlari, ereslari, eta zinegile ta antzerkigileen artean Bazkun bat eraldu eban, alkatu ta euren gogo-bizitza geyagotzeko. 900 dira igandero Mesa entzuteko Paris'ko domekatarfen eleizan biltzen diranak. Ofez gañera euren artean astero batzar bat egiten dabe, eta eurentariko batek itzaldi bat egiten dau. Antzerkile onetatik ospetsuenerikoa Henry Gheon da, ta egunokoz Donostia'n euki dogu itzaldi batzuk egiten kistar antzerkietaz.

Loreto'ko Etxe Deuna, Buruñurdunen ardurapean.

Aita Santua, Italia'ko latefiagaz egin eban Itunbenen 27'n atalean, beste batzuen artean, Loreto'ko Etxe Deuna Aita Santua'ren eskuetan geditzen zan. Eta Aita Santua Buruñurdun edo kaputxiñoen ardurapean ipintea erabagi dau. Beraz emendik auffera, eurak zainduko dabe.

Mexiko'ko yasarpina

dala-ta, beljikat katolikotafak biotz samintasuna agertu dabe, euren asafea agertuaz. Ongoan Gastedi katolikotafaren asmoz, gizonik ospetsuenak izenbetu daben agiria, Aita Santua'ren ordelari dan Ruiz y Flores agurgafiari zuzendu dautso adirazten emonaz, anai lez eurakaz dagozala, eta asafe bizia agertzen dabela, kistar kontzientziaren azkatasun kaltez emondako lege gustien aurka, Yaungoikoa gurtzeko azkatasuna osoa eskatuaz.

Alemania'ko indarkeriak.

Lengo eragozpenak gitxi dirala, egunokaz erabagi bat emon dau, izparingietan zifeskera alde, edozein dala, egitea debekau dabe. Berez emen beste biderik ez da izango eurak nai dabena gai guztietan esatea baño. Erabagi onegaz, yafina katolikotar izparingie estuntzat ipinten dautsez, eta lengo yasarpenaren gañera au eroan bear. Berlin'en Aita Santua'ren Ordezkari danak bere asafea agertu dau, ori oin urte egin zan Itunbenaren aurka dagola-ta.

Kolonia'ko areto baten lenengo yaunartzea egin eben umeak batzafa egiteko asmoa eukun ete agintariak debekau egin dabe, «antxiñako» oitura ez dala-ta. Ofaitik, txinelak gora-bera, Kolonia'ko txaideak zear 35 mila lagun ibildeunez, oben-ordainketa asmoz ibili ziran.

M.'tar G.

ELIZ-ABESTIAK Donostia'ko Argia'k argitaratuak. 10 lko. «Jaungoiko - Zale»n saltzen da.



IZPARAK

BIZKAYA

Akorda.

Labur-labur.

Olantzek diñosku EKIN'eko nago-siyak, kontu esko leku gitxiyan eskribiduteko. Alegiñan paltiatzik ezta izango.

Kanpai aundija

ipiñi dauskue elixpeko ormatan «pegata». EKIN diño baster leku gustiyetatik, EKIN, goitik, betik eta albotik. Ekin ba... ekin.

Baña egija esan gura ba-dogu, erdera geyegi geure efitxu onetan darabilgu.

Mayetaa.

Ilu be eldu yaku, eta, abadiak domekan deitubanez, mayetzeko lorak martitzenetik asiko yakuz. Geure elekan euzkeraz ederto kantauko dabe, gero elextatik urten da erdera darijola ibiliko ba-garabe. Au da penial!

Argi-barija.

Luz-eletrika edefa be imiñi dabe geure Laida'ko bafijuan. Ze gauza edefa! Konto urten au inokpe eztau agertu, ona emen neuk Laidatafen poza EKIN'etik agertuta. Ta guk noiz?

Pasadijuak.

Siketa aundija daukogu. Sokilak euri barik ezin spurto doguz. Baña batzun-batzuk berandu egiteko bildufaz, «jo» dabez, baita artuak erein be. Beste batzuk leña diardue patatak jofatuten.

Bixitak.

Egun batzuk pasaten etofita ementxe daukagu Sida «Aldapando»ko neskatila galanta.

«Bijotegi»ko Efosario'n kutunabe ementxe ixan dogu.

Baita Dionisia'n eta Efemedios'en gixonak be etxian egon dira.

Ia'tik Pilomena etofi ta Kospa beraz Ia'ra erun inoiz arte? Eztagigu. *Edera txala.*

Lengo asteko EKIN'ek aitatuten daben Maria'n txala benetan edefa jamaika efdel amaika... jayo ta batera. San Antonio'k gorde dayala.

LAGAERTZE

Mañari.

Neskutza'ren aintzarako.

Igandez, txauburu jaunak, gure Gotzain agurgafiaren asmua azaldu baz, ila onen 12 gn. elizkizun edefak ospatuko dirala iragefi euskun; eta elizkizun ofelk, Andera Miren'en aintzarako izango zirala esan euskun. Gaiztoakandik ainbestian irandua dan Jauna'ren Ama Garbi-garbija, geure Jaunartze ta ototzak dirala bide pozuta zelant bait iraingetuteko.

Ofa ba, zelako elizkizun onuratsua ta begikoak. Euretara, geure Ama goraldutera kistar gustijok juañ biar gintzakez batzuk be utsik egin barik. Gotzain jauna'ren gurarija be ori da-ta.

Lugiñak.

Egunontan arto-eretian ekiteko lufa gertetan diñardube. Lufa aro-oneko dago. Lengo igandez jausi zan euri-zapafadiak polito busti eban-eta.

Edegi dabe.

Emakume Abertzale Batza'ren are-

toko ate mofoluak, gaur, astelenez, edez dabez. Au dala-ta, pozez gagoz...

Lana geitubaz.

Markomin'go kantera zafian Aman-tegi'tar Lon bertako ugazaba buru dala, biargin pilo bat asi da lanian. Eta bertan ataraten dabien afija, Abadiano aldian egiten diñarduben bitxabal bafira eroaten dabe. Ofetarako, Lon aberkidiak, auto bafija ta txikituteko makiña erosi dauz. Irebaziak opa dautsaguz, efijan lana egon dafen be.

Juan etorrijak.

—«Altobizkar-Mendi» ixontzira juañ zan, bertan mofoe ixateko Gofotzategi'tar Matai gure auzokidia.

—Ereño'tik etofi zan bere afitia amamaan etxera Ortuoste'tar Miren Jacone neskatila.

Jazorikua.

Lenagoko urtietan garix'man txantelata-aldija, amabost egunen bafuan ixaten zan. Eta aldi ori noz ixango zan txauburu jaunak ixentetan eban. Eta egun ofeitan, txantelak artzera, bata-bestiarene atzian efiko guztijak juañen ziran. Ermenekildo defuntua be, beste batzuk lez zintzo juañen zan txantela artzera; baña, aufenengo ez ibiltiafen edo, azkenengo egunian juañen zan beti. Ori ikusirik, urte baten abadiak esan eutsen:

—Ermenekildo, zu azkenengo egunian etorten zara beti...

Eta Ermenekildo gure auzokide begikoak ben (serijo) erantzun eutsen.

—Ba... jauna, azkenengo eguna zetako ipinten dau ba... Ufengoan azkenengo egunik ez ipiñi...

MAÑARIKO

Urkiola.

Artzañak.

Be-aldian ainbat denpora egin ondoren Urkiolaratu dira Agife'tar Jon, eta Askorbebeitia'tar Agustin, artzai bijen artalde edefak. Gatsuria naikua edan nai dabena Urkiola'ra etofi.

Eguraldija.

Aurtengo udabafija ziku zamafa doyalta ta lugiñok estu zamar aurkituten izan gara, baña, Jaunari eskefak lengo egunetan oso ederto busti ditu Urkiola aldeko lufak. Orain bedafa irabazten dago ta ezkara asafe.

Lur-sagañak.

Lur-zagafak (patata) arlo aundijak erald diru Urkiolako gañian. Arabako «Dn. PATATERO» jaunak Urkiolotafakin eztauko «negozijorik». Izan biar dau emen lur-sagafa edo patatia pranku.

Etxe bari bat.

Entzun dodanez, Anboto'ko Santa Barbara deritxon Basatxodon (ermita) onduan etxe bafi bat egiten dabe Durangotafan batek, eta beragaz batera Santa Barbara'ko Basatxodona bafiztuteko asmua daukela diñue. Poztuten gara, ba.

Ellakizunak.

Urtero lez, igaro dan Astartean asi ziran Msyetzeko Ama Birgiñaren lorak.

ITUÑIOTZ

Murelaga-Aulestia.

Euskel ixena.

Astorkia'tar Jose Maria eta Gabiola'tar Marta «Solu» basetzeko senar

emaziak alabatxu bategaz geitu dabe euren sendija eta ugutzaeran Jone euskel ixen polita ipiñi dautse. Zorijonak.

Aste Gurena.

Urtero oi dan legez, aurten be eleizkizun edefagaz ospatu dogu Aste Gurena. Itzaldijak Aia Zezilio Karmeldafak egin ebazan; aurten ibildeunak be izan ditugu.

Berbizkunde-egunian Luistar gastedi taldiaren asieria zala-ta eleizkizun aundijak ixan genduzan. Goxian jauna artu ebenak befeun eta ogetaz mutil eta gixon beste ainbeste neskatila eta andratan eta neskatomutikotan be asko.

Benetan da lan edefa eta goragafia, len gogo-inarkunetan eta on egun ofetarako etofita egin daben lana, Goikoetxea'tar Pilpa aba ugurgafiak. Afatsalako eleizkizunian ixan zan Luis Deuna'ren domiñak onetsi ta luistar gastiai ipintia guztizko eleizkizun aundi ta edefagaz, eta amafuteko inoz entzun ez dautsagun moduko itzaldi eder eta sutsu bat efi onetako luistafen zuzendari dan Oar-Arteta'tar Dunixi jaunak egin eban. Zorijonak emon bafian aurkituten gara lan goragafi ofegatik efiko txauburu eta bere abade lagunai, eta batez be Aia Goikoetxea agurgafiari.

Indar-neurketa bat.

Igaro zan astian egin eban Unamuno'tar Joakin (Sakoneta'k) befogeta amar kiloko burdiñazko pisu bat artu lepuan efi onetako Ufegarai mendiko Eupeme Deuna'ren ertxadonatzua dagon lekuan eta efiko txadon edo eleiza nagusiko ormiari ikutu eta atzera artu eban lekura eruan, bere soñi edo gorputzetik inun itxi ez eta pisu ofegazeri ikutu barik. Iru ordu eta erdi emon zituban osterari egiten. Ori da indafa eta arnasia eukitial...

ILUNZAR

Gautegiz-Arteaga.

Jayotsak.

Iñaki euzkel-ixen edefa ipiñia, ugutza dabe Luis Afuntiz eta Julia Aberasturi'ren semetxu bat, Ermene-gildo Aranburu eta Fidela Landa afa-ama-bitxizat ebazala.

Eskontzak.

Egun baterik-bestera ezkontzen ei yaku, len bifitan alargunduriko «Sebastio» ospatsua Bermeo'ko neskatila on eta lirain bategaz. Neskatilak ogetabost urte ei-daukoz eta Sebastio'k be oindiño irurogeitak gora ez askol Balienterik eztagola, esango dabe gerol Dana dala be, zorionak.

Eriotzak.

Valencia'ko «Convento de Adoratrices» deritxon lekai-me-etxian il da, eriotza guztiz gozo ta samur bategaz, deuntxu baten antzera, Artia'ko alaba, Elbira Astorkia eta Ormaetxea, Franzisko eta Luisa'ren aiabia. G. B.

Eta Arteaga'n bertan bafiz, Basilia Teleria, geure adizkide Felix Muniategi'ren amagiñafaba eta Filipinas aldetik, bai EKIN'en eta bai EUZKADI'n amaikatxu olerki eta idazki edger argitaldu ebazan Sabin Muniategi'ren amama. G. B.

Juan yakuz.

Bilbao'ra: Julien eta Gotzon Labirua'tar - anayak, Antonio Aldamiz-etxebafia, Jose Mari Muniozguren, Jose Antonio Olabafieta eta Alfredo